

**EKIALDETIK OIHU IKARAGARRIA
ASKATASUNA - EGIA?**

Kazetari, irakasle, intelektual eta gainerakoek

Gertakari historiko harrigarri baten aurrez aurre gaude (1989-1990):

Hainbat nazio (Polonia, Hungaria, Alemania, Txekoslovakia, Bulgaria, Rumania eta Errusiako zenbait nazio...) askatasun-irritziz lotura guztiei gainez egiteraino heldu dira: Era guztietako komunismoaren zapalketaren aurkako oihua izan da.

Gertakari hori zeharo ezaguna da guztiontzat!

Azken 70, 50, 30 urteotan hainbeste naziotan eta era ezberdinetan ezarria izan den marxismo-leninismoaren nagusitasuna erabatekoa izan da.

Nagusitasuna: aginte exekutiboan, legegintzakoan, judizialean, ekonomikoan, komunikabideetan (telebistan, irratieta, prentsan etab.), irakaskuntzan, propagandako etengabeko balia-bideetan...

Baina milioka ahotsek (hauen artean hainbat komunista arduradun daude) argi eta garbi aldarrikatu dute guzti hau:

- Ekonomian izugarritzko porrota.
- Moral aldetik atzerakada handia, lanean, elkarrekiko bizitzan eta ohituretan eragina izan duelarik.

- Pobretze nabarmena eta gosea, bizi izateko behar-beharrezkoa ere falta izanik.

- Diktadura eta morrontza, adierazpen askatasunik gabe.

- Lor handitako zelaiak, jazarpen izugarriak.

- Gizabanakoen eta partiduaren hondamenerako inguruneak edo ustelkeria.

- Demografiari dagokionez, triskantzak, milioka hildako, oinazetuak, jazartuak etah.

- Hondamendi orokorra...

Guzti hau eurek esan eta aldarrikatu dute. Milioka ahotsen oihuz heldu zaigu. Herriaren garrasi garratz horren ondoren, guztiok dakigun zera da.

Hala ere orain arte agintariak eta komunikabideetakoek askatasun betean, aurrerapen sozial eta ekonomikoan, estatu demokratikoan, moral-bizitzarik jatorrenean inolako ustelkeriarik gabe zeudelako irudia agertu digute...

Baina lerro hauek idaztera ez nau guzti horrek bultzatu, heimgoen jokaerak baizik. Eta jokaera horrek gogoeta batzu egiteko abagunea eskaintzen digu.

Orain arte Euskal Herriko kazetariak bereziki (baina baita beste toki batzuetakoak ere), irakasleek, jende ikasiek... aipaturako egoera hori gauza handitzat, aurrerapentzat, ondasun sozio-politiko, kultural, ekonomiko eta demokratikotzat jo dute...

Alabaina milioka ahotsek ogi, askatasun, demokrazia eta aurrerapen-gosez gezurretan ari direla egotzi die eta lotsagarri utzi, lotsatzeko eta autokritikarako gai baldin badira behintzat.

Baina, nori egiten zitzaion iruzur? Orain ageri-agerian geratu den egoera hori, lehendik ere ezaguna zen, guztiz ezaguna (bu-

ruargitasun pixka bat zuen edonorentzat) orain dela 20 edo 10 urtetarik honantz... Eta hala ere kazetari horiek eta abarrek egoera ustel hori ontzat, aurrerapen handitzat agertu nahi izan digute.

Ezjakintasuna? Itsukeria?

Zer dela eta inori eta gazteei batez ere begiak estaltzeko hainbeste ahalegin?

Propaganda eta irakatsi horiek milioen salakuntzaren aurrean jartzeko gaitasunik ba al dago?

Nork erantzungo du guzti horren aurrean?

Zer esan milioka horien egia gordin eta larriaren aurrean?

Nola itxi dira begiak, milioka horiek diotenez, zapalkuntza eta sarraski horien aurrean ezikusi egiteko?

Non zegoen mendebaldeko eta herrialde demokratikoetako prentsa guzti hori ez salatzeke?

Ez al da lotsagarria goi-mailetan dauden pertsona horien adimena «slogan» zozo batzuren mende egotea?

Zabalkunde lanetan ari diren askorentzat ba al du baliorik egiak?

Oraindik Euskal Herrian egia esateko beldurra eta koldarkeria nabari dira; honelako nahiz halako itxura agertzearen beldurra... Agian milioka horiek salatutako egoeraren «adiskideak» nagusi direlako euskal medioetan?

Nora eramán nahi ote dute herria?

Askok oraindik Euskal Herriarentzat ontzat emanez jarraitzen dute milioka ahotsek hondamenditzat jo dutena.

Nik ez nuke nahi mendebaldeko herrialde «demokratikoen» egoera sozio-politikoaz laudoriorik egiterik... Jakina denez, he-

men ere nahiko «diktadura» dugu. Aginte politikoaren eta bereziki komunikabideen diktadurari nagokie, jakina!

Dardara sortzen du Espainiako politikari eta kazetariak batez ere, harropuzkeriaz beterik, izaera demokratikoaren ispilu eta maisu agertzen direnean (bakezale, elkarrizketari emanak, irekiak etab.). Alabaina «autodeterminazioa» aipatzeaz besterik gabe, demokrati itxurak galdurik, zeharo aztoraturik, faszista eta gogor-kerizale bihurtzen zaizkigu.

* * * *

Beste gauza batzutan ere berdintsu gertatzen da. Esaterako, jokaera kaskarra eta barregarria dirudi irratian, prentsa eta gainerako komunikabideetan kazetariak agertzen duten erlijioaren aurkako lehia. Orain, Ekialdeko politikari marxistak eurrak ere erlijioaren balio eta onuraz hitz egiten hasi direnean, oraindik nabarmenago da. Komunikabide batzuk, errazkeriari emanak, makalenari, bere burua babestu ezin duenari erasotzera jotzen dute gezurrez, irainez, erlijioaren aurkako adierazpen mesprezagarritz...!

Hauak bai «profesional» ausartak!

Esaten ari naizen hau irratian, prentsan eta gainerakoetan maiz gertatzen dena da.

Profesionaltasunagaitik?

Bere burua babestu ezin duenaren aurrean indarra agertzearren?

Errazkeriara jotzearren?

Hori demokraziaren ezaugarria da ala faszismoarena?

Non hasten da askatasuna edo egia?

Milioka horien oihuan ziur asko!